



GEMMA

Emakume migranteek aurre egindako genero indarkeria tratatzeko esku-hartze eredu multiagentzial europar baten alde.


KONKLUSIOAK



FARAPI KOOP.



Dokumentu honetan topatuko duzuna:

- ▶ Sinplifikatutako zeharlerroak
 - ▶ Zeharlerroen aplikaziorako prozesuaren sistematizazioa (pilotuaren emaitza)
- 

ZE HARL ERROEN SINPLIFIKAZIOA:

Zeharlerroak modu honetan sailkatuak izan dira:

- 1. EMAKUMEAK LEHENIK**
- 2. ANIZTASUN, AURREIRITZI ETA ZURRUMURRUEN
INGURUKO FORMAKUNTZA/SENTSIBILIZAZIOA**
- 3. ARLO DESBERDINETAKO AGENTEAK IDENFITIKATZEA**
- 4. KOMUNITATEA, EREMU SEGURUA?**

ZEHARLERROEN SINPLIFIKAZIOA:

1. EMAKUMEAK LEHENIK

1.1. Neurriak, erabakiak har daitezzen informazio egokian oinarrituta eta prozesuaren inplikazioez guztiz jabetuta

- ▶ Emakumeek informazio egokia jaso behar dute, kontuan hartuta emakume migratzaile izan eta indarkeria matxista jasandako errealitate bikoitza bizi dutela, honako gaiei buruz:
 - Eskura dituzten zerbitzu eta baliabideak
 - Dagozkien eskubideak
Egon daitezkeen oztopoak
- ▶ Informazioak eskuragarri izan eta eskura egon behar du:
 - Espazio formal eta ez-formaletan (leku ofizialak, bileretakoak, aisiakoak etab.)
 - Hizkuntza ezberdinetan (itzulpen osoak, ez hitz gakoena soilik).
 - Kultur oinarri desberdinak kontuan hartuta egina izan behar du.

- ▶ **IMri aurre egiteko prozesuan parte hartzen duten eragileek** (administrazioak, asoziazionismoa...), ondorengo gai hauen inguruko formakuntza eduki behar dute:
 - Emakume migratuen **eskubideak** eta IM.

Biolentziari aurre egiteko prozesuen (emakume bakoitzaren beharrak, denborak, entzute aktiboa...) eta prozesu migratzaileen **ezaugarriak**.

- Emakumeei **autoestimua** eta **autonomia berreskuratzen lagunduko dieten prozesuak**.

- ▶ **Interpretazioaz** arduratzen denak honako gaien inguruko ezaguera izan behar du:

i) Interpretazioa / itzulpengintza; ii) Bitartekaritza; iii) **Indarkeria Matxista**

1.2. Hartu beharreko neurriak, prozesuek emakumeak ahaldundu ditzaten eta aberasgarriak izan daitezen

- ▶ Emakumeek **euren prozesuen jabe** izan behar dute, eta erabaki propioak hartzeko aski informazio izan.
- ▶ **Laguntzaile irudi bat** sortu, emakumeen beharrak kontuan izango dituen (esanahi zabalenean) IMri aurre egiteko prozesu osoan zehar.
- ▶ Kontuan hartu ekimen sozial eta kulturalak, emakumeen aldeko **sare sozialak sortzeko eta laguntza emateko**, baita IM detektatzeko gune gisara.
 - Nola zaintzazko eta konfidantzazko guneak (bertaratu daitezkeen elkarteak...)
 - Hala gune irekiak (herrietako jaiak...)
- ▶ **IMren inguruko formakuntza/tailer/sentsibilizazio saio espezifikoak** antolatzerakoan, ez zehaztu gaia esplizituki izenburuan edo edukian; izan ere, haren inguruko aurreiritziak, beldurrak edota bertara joateko zailtasunak izan ditzakete (euren komunitatearen edota bikotearen aldetiko kontrol

2. ANIZTASUN, AURREIRITZI ETA ZURRUMURRUEN GAINEKO SENTSIBILIZAZIOA/FORMAKUNTZA

2.1. Kontuan hartu beharreko neurriak etorrera eremuan, emakumeen jatorriko komunitatearekiko:

- ▶ Jakina da IM egoeratan maiz ingurune hurbilenak **kontrol eta zapalkuntza** paper bat jokatzen duela. Beraz, garrantzitsua da ondorengo neurriak gogoan izatea beti:
- ▶ **Emakumeak:** berak baloratuko du nahi ote duen bere komunitateko ordezkariak parte har dezaten diziplina anitzeko lantaldeetan.
- ▶ Prozesuan parte hartzen duten eragileek kontuan hartu beharko dute:
 - **Emakumearen komunitatea ordezkatzeko duenari buruz:** IMrekiko sentsibilizazio maila nahikoa duela eta emakumearenganako estigmatik ez duela sortzen.
 - **Autoanalisisa:** estereotipoek ez dezatela baldintzatu emakumeen segurtasuna, hautuak eta ahalduntzea, kontuan hartuta euren asmoak komunitatearekiko.
- ▶ IMri buruzko sentsibilizazio jarduerak: komunitateekin lan egitearen garrantzia, nola elkarrekin hala erakundeekin.

2. ANIZTASUN, AURREIRITZI ETA ZURRUMURRUEN GAINEKO SENTSIBILIZAZIOA/FORMAKUNTZA

2.2. Kontuan hartu beharreko neurriak euskarri sare izango den komunitate baten sorrera sustatzeko orduan:

- ▶ IMri aurre egiteko, emakumeek funtsezkoa izango dute euskarri sare bat non...
 - ... harreman eta konfidantzazko guneak sor daitezken.
 - ... beren kultur kodeak kontuan hartuko diren.
 - ... dauden zerbitzuei buruzko informazioa jasoko duten.
 - ... protagonistak izan, ahotsa eduki eta ageriko senti daitezzen.

- ▶ Erakundeek:
 - Ehun asoziatiboa sustatu beharko dute eta, behar ezkeror, auto-antolaketan lagundu.

ZEHARLERROEN SINPLIFIKAZIOA:

3. ARLO DESBERDINETAKO ERAGILEAK IDENTIFIKATZEA

Glri aurre egiteko baliabideen identifikazioan lan egiteko neurriak. **NORK ZER EGITEN DUEN jakitea, emakumeentzat bideratzeak edo kontsultak eraginkorragoak izan daitezten.**

▶ **LANKIDETZA ETA SAREKO LANA:**

- Diziplinen arteko lankidetzak eta sareko lana, kasuen ezagutzak partekatzeko (datuen babeserako legearekin bat) eta zerbitzu bakoitzak egiten duena jakin ahal izateko.
- Gizarte zerbitzuak erreferentziazko informazio puntu izatea emakumeentzako, eta, halaber, informazio iturri zerbitzuetako eragileentzako.
- Iristeko zaila den populazioarekin lan egiten duten eragileekin elkarlana eta parte-hartzea, sektore ezberdinekin (hezkuntza, erakunde publikoak, osasuna, polizia, etab.) eta maila ezberdinetako erakundeekin (elkarteak, GKEak, etab.).
- Politikak inplementatzen dituztenen eta lehen lerroan lan egiten dutenen arteko komunikazioa bultzatzea.
- Online komunikazioak koordinazio hori erraztu dezake (malgutasun gehiago)

▶ **ESTRATEGIAK ELKARREN ARTEAN ZEHAZTEA:**

- Nazioarteko estandarretan oinarrituriko terminologia komun bat erabiltzea eta zerbitzu guztiek legezko markoaren oinarritzko ezaguera bat jasotzea, alde aurretik formakuntza egoki bat jasota.

▶ **EBALUAZIO JARRAITUA:**

- Mekanismoak gehitu emakumei eskaintzen zaizkien zerbitzuen ebaluazio jarraitua egin ahal izateko.
- Ebaluazio jarraitua sartu formakuntzaren onuradunak, emaitzak eta epe luzeko aldaketa positiboak lortu ahal izateko.

ZE HARLEROEN SINPLIFIKAZIOA:

4. KOMUNITATEA, EREMU SEGURUA?

Kontuan hartu beharreko neurriak etorrera eremuan, emakumeen jatorriko komunitatearekiko:

Jakina da IM egoeratan maiz ingurune hurbilenak kontrol eta zapalkuntza paper bat jokatzen duela. Beraz, garrantzitsua da ondorengo neurriak gogoan izatea beti:

Emakumeak: berak baloratuko du nahi ote duen bere komunitateko ordezkariak parte har dezaten diziplina anitzeko lantaldeetan.

Prozesuan parte hartzen duten eragileek kontuan hartu beharko dute:

Emakumearen komunitatea ordezkatzeko duenari buruz: IMrekiko sentsibilizazio maila nahikoa duela eta emakumearenganako estigmatik ez duela sortzen.

Autoanalisi: estereotipoek ez dezatela baldintzatu emakumeen segurtasuna, hautuak eta ahalduntzea, kontuan hartuz euren asmoak komunitatearekiko.

IMri buruzko sentsibilizazio jarduerak: komunitateekin lan egitearen garrantzia, nola elkarrekin lan egitea.

Emaitza pilotua: prozesua eta materialak

Gidalerroen aplikazio prozesu orok bere osotasunean eduki behar ditu ondoko multzoak:

- ✓ **1. Multzoa:** marko/akordio komun bat eraikitzea.
- ✓ **2. Multzoa:** diziplinartekotasuna lantzea.
- ✓ **3. Multzoa:** errealitateari atxikitzea.
- ✓ **4. Multzoa:** kolokan jartzea komunitatearen ikuspuntua aliantza gisa.

Emaitza pilotua: prozesua eta materialak

1. Multzoa

- ▶ Parte-hartzaileen artean marko/akordio komun bat eraikitzeko lan egin.
- ▶ Garrantzia handikoa da hainbat gai lantzea, nola diren indarkeria matxistaren oinarri teorikoak, berau ulertzeko moduak, indarkeria mota desberdinak, zioak, ondorioak, ardurak... hala atzeritartasun, arrazakeria, aurreiritzi eta pertzeptzioekin zerikusia dutenak, baldintzatu egiten baitute emakumeen bertaratzea eta indarkeriari aurre egiteko prozesua.
 - Hartara, datu eta estatistiken erabilera oso baliagarria da, arazoa agerian jartzen laguntzen baitute eta aldi berean emakumeei aurpegia ipintzen hasten gara.

Hala, prozesuaren oinarriak finkatuko dira, eta prozesuaren luze-zabalean errepikatuko dira behar den bakoitzean.

Emaitza pilotua: prozesua eta materialak

2. Multzoa

► Diziplinartekotasuna landu:

Taldea, konfidantza eta sinergiak sortze aldera ondoko puntuak landuko dira, nahitaezkoak gerora beharko den koordinazioa ziurtatzeko:

- Elkarren arteko ezagutza: bakoitza nor den talde barruan, nork zer egiten duen...
- Konfidantza eraiki: prozesuan zehar modu inplizitu eta jarraian egingo da.
- Erabiliko den metodologiak aliantza sarea sortzea sustatuko du elkarlana ahalbidetzeko.
- Eremu sozialean integratzeari balioa emango zaio, eta taldean egindako lanaren garrantziari eremu sozial argi batean, emakumeekin egindako lana eraginkorra izatea nahi bada.

Multzo honek helburu du azpimarratzea eta erraztea Talde Pilotuaren lan mahaian parte hartuko dutenen arteko lan jarraitu eta koordinatua. Horietan dautza prozesuaren gakoak eta indarguneak.

Emaitza pilotua: prozesua eta materialak

3. Multzoa

- ▶ Oinarrizkoa da egiten den lana errealitateari atxikia egotea, etengabe sustatuz:
 - Emakumeekiko ezagutza haien bizi historien bidez.
 - Arlo teknikoan errealitatearen ezagutza planteatuko da (GS, lege eta administrazio baliabideak), arautegiaz eta arau espezifikoek landa. Emakumeen esperientzia izango da abiapuntua.
- ▶ ¿Nola lan egingo da?
 - Kasuen aurkezpena
 - Langileen parte-hartzea.
 - Emakumeen parte-hartzea (zuzenean edo zeharka)

Oso garrantzitsua izango da zalantzak eta konponbideak elkarren artean aurkezteko unea.

Emaitza pilotua: prozesua eta materialak

4. Multzoa

Kolokan jarri komunitatea aliantza deneko ikuspegia.

- Bada dualtasun bat jatorriko komunitatean ekarpen positibo eta negatiboei buruz. Garrantzitsua da gogoratzea ez (emakume) desberdin guztiak berdinak direla.
- Bada dualtasun bat **etorrerako komunitatean**: Prebentzioa eta esklusioa.

Emaitza pilotua: lan proposamena

a)

Egitasmoa testuinguruan jartzea:

Estatistikak, demografía... emakumeen lekukotasunen adibideekin + 'zuek han, zer egiten duzue' bakoitzaren egoera landu errealitate honetan.

b)

Formakuntza:

Teoría, esperientzia (kanpokoak), gidalerroak, esperientziak partekatu kasu praktiko baten laguntzarekin. (1ean esandakoari estu jarraituta)

c)

Ebaluazioa:

Prozesua hastean, diagnostiko baten *0 une bat* zehaztu, paraleloan egingo dena egitasmoan parte hartze duten instituzioetan gidalerroak sartu eta abiarazteko prozesuarekin batera. Hartara, neurtu ahal izango da amaieran aldaketak izan ote diren.